

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, VIA, PROMOCIÓN DEL AEROPUERTO DE VITORIA, SA-REN FISKALIZAZIOARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak joan den urriaren 29an aho batez onartu zuen VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SAren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldiari dagokiona.

2018ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako zenbait doiketa atzeman diren, Ondare Garbia 0,5 milioi euroan murriztuko luketenak, eta ekitaldiaren emaitzan eraginik ez duten beste zenbait birsailkapen.

Gainera, ondorioztatu du Sozietateak **zuzentasunez bete duela** 2018ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz **unean uneko ez-betetzeak** azaleratu diren **Langileen eta Kontratazioaren ataletan**; langileen atalean aldi baterako kontratu bat mugagabe bihurtu da, hautaketa-prozesurik batere egin gabe; eta kontratazioan, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari 1994an kontratu bat zegokion araudia bete gabe esleitu zitzaion.